


Nola desberdindu metal batzuk ?

1. Kolorea

- Lau xafla metaliko ditugu : aluminiozkoa, kobrezkoa, burdinezkoa eta zinkezkoa.



1. irudia

- Urrezko eta zilarrezko bitxi batzuk beha ditzagun.



2. irudia

1. Zer kolore du kobrezko xaflak ?
2. Zein dira kolore ezaugarri bat duten metalak ?



2. Ezaugarri magnetikoak

- Hurbil dezagun iman bat hiru xafla grisengandik : hauetako bat bakarrik erakarria da imanarengandik.



3. irudia

- Hurbil dezagun orain iman bat bi bitxiengandik : ez da bat ere imanarengandik erakarria.



4. irudia

1. Zein metal erakartzen ditu imanak ?
2. Zein metalak ditu ezaugarri magnetikoak ?

Nola desberdindu metal batzuk ?

3. Dentsitatea

- $9,3 \text{ cm}^3$ bolumen bereko lau zilindro ditugu : burdinezkoa, kobrezkoa, zinkekoa, eta aluminiozkoa. Zilindro bakoitza pisa dezagun.



5. irudia

Metal	Zilindroaren masa
Burdina	73,1 g
Kobrea	82,8 g
Zinka	66,3 g
Aluminioa	25,1 g

- Irudika dezagun urrezko eta zilarrezko bi zilindroen pisaketa.



6. irudia

Metal	Zilindroaren masa
Urrea	179,3 g
Zilarra	97,5 g

1. Bolumen bereko zein zilindrok du masarik handiena ?
2. Sailka itzazu metal desberdinak dentsitate handiena duenetik dentsitate tipiena duenera (bolumen berarentzat, dentsitate handienekoa masa haundiena duena da).

4. Korrosioa

- Gaineko geruza ken diezaiegun xafla metalikoei eta utz ditzagun airearen kontaktuan aste batzuk. Beha ditzagun xaflen itxurak eta koloreak.



7. irudia

- Indusketa arkeologiko batean urrezko eta zilarrezko bi estatua atzemanak izan dira.



8. irudia

1. Zein dira itxuraz aldatu diren xaflak ?
2. Zein metal herdoiltzen da ? Zein metal estaltzen da geruza berde batez ?
3. Zein metalek galtzen dute haien dirdira ?
4. Zein metal dira itxura ber-bera mantentzen dutenak ?

Hitzen bidez ikasten dut

- Metal arruntak (aluminioa, zilarra, kobrea, burdina, urrea eta zinka) solidoak dira eguratseko tenperaturan. Beroaren eta elektrizitatearen eroale biziki onak dira.
- Urrea (horia) eta kobrea (gorri-laranja) haien kolore bereziarengatik ezagutzen ahal dira.
- Zilarrak kolore zuri dirdiratsu berezia du.
- Burdina, imanak erakartzen du.
- Aluminioa, dentsitate apaleko metala da, zinka dentsoagoa da.
- Eguneroko metalen erabilera desberdinek, haien ezaugarriak, prezioa eta kantitatearen arabekoak dira.

Marrazkien bidez ikasten dut



Zuria eta dirdiratsua
Zilarra da

Zer kolore du metalak ?
Metalak gris-zurixkak dira

Metala imanak erakartzen du ?
Ez



Metala imanak erakartzen du ?
bai
BURDINA da



Gorri-laranja
KOBREA da




Horia
Bietan dentsitaterik
handiena du
URREA da

Aluminioa edo zinka



Zer kolore du metalak ?
Metalak gris-zurixkak dira
ZINKA da

Zeinek du bietan
dentsitaterik handiena ?



Bietan dentsitaterik tipiena du
ALUMINIOA da

Gaitasunak

- Eguneroko metalak desberdintzeko gai naiz behaketa edo test simple batzuei esker.
- Eguneroko metalen erabilera batzuen ezagutzeko gai naiz, eguneroko bizian.